

Ziburu, euskararen arnasmune berri bat

Miren Azkarate
Badiola

Euskarak eta euskal kulturak arnasmune berri bat izango dute gaurtik aurrera. Bi estatu handiren artean dugun herri txiki honek hainbeste behar duen beste oasi txiki bat izango da, urte luzeetan gertuko denaren esperantza. Non gainera eta euskara hizkuntza existitzen omen ez den leku batean. Ez gaizki ulertu, euskara hizkuntza ofiziala (ezta koofiziala) ez den lurralde bati buruz ari naiz; Lapurdiri buruz, hain zuzen ere.

Kostako herri txiki zein polit batek aurtun lehen euskal liburu eta disko azoka bat izango du, Ziburuko I. Liburu eta Disko Azoka ospatuko da gaur herriko plazan.

Euskal Herrian zehar baditugu horrelakoak. Ezagunena eta handiena Durangoko Azoka, non urtetik urtera bertaratzen den jende kopurua handiagoa den eta bertan aurkeztu diren produktuak ere ugartzen doazen. Baina ez da azoka bakarra eta gaurkoa ikusita badirudi euskarak eta euskal

kulturak uste baino osasun hobea dutela. Hala izango ote da!

Azken urteotan gorakada nabarmena bizitzen ari da euskara Ipar Euskal Herrian, horren adibide garbia da Seaskako ikastolek urtetik urtera duten matrikulazioen hazkunde ikaragarria. Euskarak badu harrobia eta nonbait geroz eta handiagoa; garrantzitsua azoka sortu berri honek kontsumitzaileak izan ditzan.

Ongi etorri, eta urte askoan, Ziburuko Liburu eta Disko Azoka. •

Argi luzeak

Antton Izagirre

Hauteskundealdi luze baten azken saioa igarota, alderdi politikoak, komunikabideak eta eragile desberdinak gobernantzarako negoziazio eta akordiorako espekulazio eztabaidaren erdian murgilduta dabilzan honetan, epe motzeko begirada horretatik harago galdera bat egin beharra sumatzen dugu: ezer aldatu al da benetan? Hau da, gizartearen egitura ekonomiko-sozialean eragin izateko adineko mugimendurik suma daiteke ala guztiak bere horretan jarrai dezan bermatzeko makinaria izan dira hauteskundeak eta eratorritako indar korrelazioak? Alderdi politiko desberdinen analisitik eta fokuetatik aldenduz

gero, zer ikuspegi gailentzen ari zaigu argi luzeak piztuta?

Hauteskunde biharamunean, Adegiko ordezkariak hor atera zaizkigu enpresetan langileen soldata igoeraren kargak enpleguaren sorrera arriskuan jartzen duela ohartaraziz.

Axola gutxi gobernantza nola eratzen den. Kapitalaren boterea non dagoen aldarrikatzera datozela ez dago zalantzarik. Edozein kasutan esan liteke, euskal gizartearen gehiengoak eskuin politikoa-ri babesa eman diola, nahiz eta kalean aldarrikatzen diren eskaera sozialak bestelakoak diren: erretiro duina, gutxiengo soldata, generoaren arteko arrakalari ez, prekarietateari ez, zerbitzu publikoak...

Nola ulertu kontraesana? Ala, ez dago kontraesanik eta orotara gizarteak ez dio aitortzen politikagintzari eraldaketa sozialerako gaitasunik?

Edonola ere, edo behar bada horregatik, ezkerreko ikuspegia duten alderdi politiko, sindikatu eta gizarte eragileek, luzerako begirada jarrita, badute eraldaketa sozialean eragiteko erantzukizun eta motiborik.

Kapitalismoaren oldarraldia ez da kasualitatea eta benetan gizarte justuagoa nahi badugu, horri aurre egitea betebeharra da. Zentzu horretan aurkeztu berria den Euskal Herriak Kapitalari Plan- to plataforma indarrak metatzeko eta lanerako aukera izan liteke. •